



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko urtarrilaren 19a

7. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aldaketa klimatikoaren aurkako ekintza-estrategia berri bat diseina eta aplikatu dezan. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gaixo kronikoentzako estrategia orokor bat presta dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da igor ditzan enpresa publikoetako kudeatzaileen ordainsariei buruz ezarritako irizpideak. Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua premiatzen da arbuia ditzan Espainiako Gobernuak iragan abenduaren 31n iragarritako neurriak. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da onar dezan Nafarroak Bruselan duen bulegoari buruz Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioak eginiko proposamena. Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sala dezan Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalarekin sinatutako hitzarmena, 2011ko abenduaren 31tik aurrerako ondorioekin. Mozioa erretiratzea (8. or.).

#### F S A I L A:

##### **Galderak:**

- Galdera, Iruñean jarritako izeien jatorriari buruzkoa, Víctor Rubio Martínez jaunak egin (9. or.).
- Galdera, De Guindos ministro jaunak autonomia erkidegoetako aurrekontuak onetsi aurretik Gobernu Zentralak eman beharreko baimenari buruz eginiko adierazpenen inguruko iritzia buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egin (9. or.).
- Galdera, Gobernuko lehendakariordeak BPGa gutxiago hazi izanak 2012ko diru-sarrera fiskaletan izanen duen eraginaren gainean eginiko adierazpenei buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egin (10. or.).
- Galdera, zentro teknologikoen kostuari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egin (11. or.).
- Galdera, Nafarroako Pirinioetako Partzuergoa desegiteari buruzkoa, Patxi Leuza García jaunak egin (11. or.).

- Galdera, Lizarrako Remontival ikastetxe publikoko hizkuntza ereduen arabeko balizko bereizketari buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa osatzen duten administrazio kontseiluetako kideei buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egina (12. or.).
- Galdera, Odol eta Ehun Bankuan erabiltzen den prozedurari eta ehunen kontrolaren kudeaketari buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (13. or.).
- Galdera, N-240 errepidean, Ledeko parean, trafiko astunari balizko muga ezartzeari buruzkoa, Txema Mauleón Echeverría jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Josefina Arregui zentroko ohe bakoitzaren kostuari buruzkoa. Galdera erretiratzea (15. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Comptos Ganberaren Erregistro Orokorraren 2012rako ordutegi ofiziala (16. or.).

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aldaketa klimatikoaren aurkako ekintza-estrategia berri bat diseina eta aplikatzea.**

*IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita aldaketa klimatikoaren aurkako ekintza-estrategia berri bat diseina eta aplikatzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**MOZIOAREN TESTUA**

José Miguel Nuin Morenok, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduarekin bat, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Klima-aldaketaren aurkako borroka premiazko beharrez bat da. Ingurumen-arazo larrietako bat da gaur egun munduan, bai eta Nafarroan ere.

Negutegi-efektuko gasen ondorioak eta klima-aldaketaren ezagututa, argi dago Kyotoko Protokoloan hartutako konpromisoak bete beharra dagoela, gas horien isurketak murrizteko. Presakoa eta lehentasunezkoa da horren arabera jardutea, Nafarroako airearen kalitatea gutxieneko osasungarritasun-baldintzetara iristen ez den eskualde guztietan.

Garapen Iraunkorrerako eta Klima-aldaketaren aurkako Europako Estrategian adierazten denez, garrantzitsua eta presakoa da Nafarroako Gobernuaren legedi osoak (Hondakinei buruzko Plana, Mugikortasun Iraungarriari buruzko Legea, 2020ra bitarteko Energia Plana, Hiriarteko Garraioari buruzko Legea eta abar), bai eta Etxebizitzari, Industriari eta Nekazaritzari nahiz Abeltzaintzari buruzkoak ere, zorrotasunez eta konpromiso zehatzen bidez bete ditzan estrategia horietan jasotzen diren irizpideak: isurketen kontrola, aurrezpen eta efizientzia energetikoa, garapen iraungarria eta ingurumenarekiko begirunetsua, energia garbiak eta berriztagarriak jatorri fosilekoen aurrean, klima-aldaketari buruzko informazioa eta prestakuntza, klima-aldaketaren aurkako borroka-moldeak, eta abar.

Nafarroan urtero errepikatzen dira negutegi-efektuko gasen gehiegizko isurketak, batez ere CO<sub>2</sub>renak, eta hortaz, ez da Kyotoko konpromisoa betetzen, 1990ean ezarri baitzuen 2012ra bitarte % 15 igotzea gehienez ere. 2006an, Nafarroako CO<sub>2</sub>ren isurketak % 78,31 igo ziren 1990aren aldean. Espainian, aldiz, batez beste % 50 igo ziren. 2009an, energia berriztagarriak ikaragarri garatu ziren arren eta kontsumoa krisia zela-eta murriztu den arren, 1990ean baino % 73,9 CO<sub>2</sub> gehiago isuri zen Nafarroan. "Elektrizitatea erregai fosilen bidez produzitzen dituzten plantak dira Nafarroan negutegi-efektuko gasen isurketa handienak egiten dituztenak (industria-sare osoan zehar daude sakabanatuta), eta horiekin batera ibilgailuen trafikoa, batez ere errepideetako salgai-garraioak. Nafarroak Espainiako populazio osoaren % 11,35 dauka, eta Espainiako BPG osoaren % 1,7, baina guk isurtzen dugu Estatuan isuritako CO<sub>2</sub> tonen % 2,02.

Nafarroako Parlamentuko Landa Garapenerako eta Ingurumenerako lan-taldeak 2010ean ondo-

riotzatu zuen klima-aldaketaren aurka jardun beharra zegoela, Kyotoko Protokoloan emandako jarraibideak onartu eta ondokoak eginez: Garraio Iraungarriari buruzko Lege bat, Energiaren Aurrezpenari eta Erabilera Efizienteari buruzko Foru Lege bat, Hondakinei buruzko Plana araudi indardunari egokitu, Mugikortasun Iraungarriari buruzko Legea eta nekazaritza eta abeltzaintzako planak eta etxebizitza arloko araudia egokitu. Lan-talde horren ondorioek erreferentzia izan beharko lukete egungo Nafarroako Gobernuak klima-aldaketaren aurka ezar ditzakeen ekintzetan.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak 2007an presatzen hasi zen Klimaren aldeko Ekintza Planak eta 2011ko urtarrilaren 31n onetsi zuen Klima-aldaketaren aurkako Estrategiak (ustez plan horren fruitua denak) zenbait konponbide eta neurri ezartzen dituzte, eta nahiz eta konponbide eta neurri horiek aski ez izan, praktikan jarri beharko liriteke, airearen kalitatea hobetzeko. Konponbideak, hala nola zuzeneko isurketen igoera muga-tzea, zentral termikoekiko tratamendua aldatzea eta garraioaren nahiz mugikortasunaren sektorea egiaz aldatzea, trenaren eta salgaien nahiz bidaiarien garraio publikoaren erabilera sustatuz, bai eta hondakinak errausteari buruz hartutako erabakiak eta neurriak berrikustea eta geldiaraztea, aipatu estrategiaren printzipioei eta helburuei aurka egiten dieten neurrian.

Hortaz, asmoa da Nafarroan klima-aldaketaren aurkako estrategia berri baterantz egiaz aurrera egitea, halako moduan non konpromiso zehatzak hartuko baitira eta horiek zorrotz bete beharko baitira, isurketak murrizteko irizpideak ezarriz (% 20 gutxienez ere 2020an, 1990aren aldean), energiaren kontsumoa murrizteko irizpideak (% 20 gutxienez ere 2020an, 1990aren aldean) eta iturri berriztagarrietako energia igotzeko irizpideak.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du klima-aldaketaren aurkako ekintza-estrategia berri bat taxutu eta aplikatu dezan Nafarroan, klima-aldaketaren aurkako estrategia nazionalaren barruan koordinatuta, Europako erakundearen eta Kyotoko Protokoloaren jarraibideei jarraikiz, halako moduan non Nafarroako legedi osoak arlo horretan ezartzen diren neurri guztiak jasoko baititu mugikortasunari, energiari, hondakinei, etxebizitzari, nekazaritzari, abeltzaintzari eta abarri dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du departamentuen arteko batzorde bat sor dezan, Gobernuak Lehendakariaren eta Klima-aldaketaren aurkako Nafarroako Bulegoaren menpekoa, estrategia hori taxutze aldera.

Iruñean, 2011ko abenduaren 23an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da gaixo kronikoentzako estrategia orokor bat presta dezan.**

### *NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita gaixo kronikoentzako estrategia orokor bat presta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko.

Herrialde garatuetan garrantzi handia ematen zaio gaixotasun kronikoen eta endekapenezko gaixotasunen prebentzioari, eta maila apalago batean gelditzen dira infekziozko gaixotasunak. Gaixotasun kronikoak ondorio nabarmenak ditu gaixoaren bizi-egoerari dagokionez, ezintasun maila handia eragiterainokoa, baldin eta berez bilakatzen uzten bada edo modu desegoki batez esku hartzen bada.

Gaixotasun horietako gehienetan, aldiz, eguneroko autonomia erabatekoa izan daiteke baldin eta gaixoaren autozainketa ona bada. Pertsona horiek erdiets dezakete egoera bat zeinetan ez duten bere burua gaixotzat hartzen eta ez duten nahi halakotzat har ditzaten.

Hona gaixotasun kronikoen zenbait ezaugarri komun: pairamen sendaezina, multikausalitatea edo pluripatologia, multieraginkortasuna, kutsakorra ez izatea, hondarreko ezgaitasuna, errehabilitazioa, garrantzi soziala, aurreikusi ahal izatea, galera-sentimendua.

Gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen beharri erantzun bat eman beharra dago nahitaez,

bai osasun-emitzen ikuspuntutik, bai sistemaren jasangarritasuna bermatzearen ikuspuntutik ere, kostuen gaineko presio handiagoko ingurune batean.

Kronikotasunak eskatzen du planteamendu integratzaile eta koordinatu bat egitea, hala osasun-sistemaren barruan (lehen mailakoa, espezializatua, egonaldi ertainekoa, egonaldi luzekoa, osasun mentala...) nola sistema horretatik harago, kronikotasunarekin zuzenean lotutako erakundeekin, departamentuekin, programekin eta dispositibo erabilgarriekin (gizarte-laguntza, kirola, lan-osasuna).

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gaixo kronikoentzako estrategia integral bat taxutu dezan.

Estrategia hori parte-hartzailea eta Osasun eta Gizarte Gaietako departamentuen artean koordinatua izanen da.

Estrategia urtebeteko epean aurkeztuko zaio Nafarroako Parlamentuari, eztabaidatu eta onetsi dezan.

Iruñean, 2011ko abenduaren 23an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da igor ditzan enpresa publikoetako kudeatzaileen ordainsariei buruz ezarritako irizpideak.**

### **ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita igor ditzan enpresa publikoetako kudeatzaileen ordainsariei buruz ezarritako irizpideak.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitarara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da enpresa publikoetako kudeatzaileen ordainsariak helburuei lotutako irizpideen arabera izan daitezkeen.

Nafarroako Gobernuak iragan urriaren 5ean iragarri zuen bukatu dela Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa osatzen duen enpresa publikoen sektorea berregituratzeko plana.

Abenduaren 22an, berriz, Nafarroako 2012rako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen proiektua onetsi zen. Proiektuko 8. artikuluan jasota ageri dira sozietate publikoetako zuzendari kudeatzaileentzako urteko ordainsariak, sozietate motaren eta horiek kudeatzearen zailtasunaren arabera 55.000 eurotik 85.250 eurora bitartekoak direnak.

Artikulu horrek orobat ezartzen du urteko ordainsarian ordainsari aldakor bat sartuko dela,

helburuak betetzearen arabera eta % 15etik 40ra bitartekoa izanen dena.

Nafarroako Gobernuak ez du oraindik zehaztu zer irizpide ezarri dituen, ordainsari aldakor horiek emateko orduan.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

1. Nafarroako Parlamentura igor ditzan, gardentasunaren mesedetan, Nafarroako Gobernuak ezarritako irizpideak, Nafarroako 2012rako Aurrekontu Orokorretan finkatutako helburuen arabera Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa osatzen duten enpresetako zuzendari kudeatzaileek jaso beharreko ordainsari aldakorrei buruzkoak.

2. Nafarroako Parlamentuan urtero aurkez dezan oroitidazki bat, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko sozietateetako ordainsari aldakorri lotutako helburuen betetzeari buruzkoa.

Iruñean, 2011ko abenduaren 28an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua premiatzen da arbuia ditzan Espainiako Gobernuak iragan abenduaren 31n iragarritako neurriak.**

### *BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentua premiatzen baita arbuia ditzan Espainiako Gobernuak iragan abenduaren 31n iragarritako neurriak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**MOZIOAREN TESTUA**

Maiorga Ramírez Errok eta Bakartxo Ruiz Jasok, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduen 195. artikuluen eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

2011ko abenduaren 31n, Alderdi Popularraren Espainiako Gobernuak zenbait neurri iragarri zituen aurrekontuen, zergen eta funtzio publikoaren arloan. Parlamentu-talde honen ustez, neurri horiek inboluzio sozial larria dakarte, eta errezeta politiko horrek sakondu egingen du langabeziaren sorreran eta konkista sozialen atzerakadan.

Halaber, neurri horiek zalantzarik gabe izanen dituzten ondorio kaltegarrien aurrean Nafarroako herritarrak babeste aldera, parlamentu-talde honek garbi du eman daitekeen erantzunik onena

dela neurri horiek Nafarroan ez aplikatzea. Horretarako, gure autogobernuaren mugak muga, eskumenen arloan badira zenbait tresna, Nafarroako erakundeek erabil ditzaketenak eta erabili behar dituztenak.

Hori dela eta, gure parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Espainiako Gobernuak iragan abenduaren 31n iragarritako neurrien aurka dagoela.

2. Nafarroako Parlamentuak, gure eskumenak eta autogobernu mugatua baliatuz, neurri horiek ez aplikatzeko borondatea adierazten du.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Bakartxo Ruiz Jaso

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da onar dezan Nafarroak Bruselan duen bulegoari buruz Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioak eginiko proposamena.**

### *NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita onar dezan Nafarroak Bruselan duen bulegoari buruz Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioak eginiko proposamena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da onar dezan Nafarroak Bruselan duen bulego Espainiak Bruselan dituen enbaxadara eta kontsuletzera eramateari buruz Kanpo Arazoetara-

ko eta Lankidetzarako Ministerioak egindako proposamena, gastu publikoa murrizte aldera.

Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioak autonomia erkidegoei proposatu die Espainiako enbaxadetara eta kontsuletzetara bidal ditzaten autonomia erkidegoetako funtzionarioak, kanpo ordezkartzako bulegoak ixtearen truke. Neurri horren helburua da bikoiztasunak ekiditea eta sinergiak aprobetxatzea. Gainera, formula horren aldeko apustua egiteak aurrezpen handia dakarkie autonomia erkidegoetako gobernuei.

Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioak proposatutako neurriarekin –Espainiak Bruselan duen enbaxadan Nafarroako Gobernuko funtzionario bat jartzea–, Nafarroak kanpoan dituen beharrianak aseko lituzke, orain dituenak baino bitarteko hobeak edukiko lituzke bere egin-kizunetarako, eta gastu publikoa murrizten lagunduko luke.

Hori guztia dela eta, Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioaren proposamena onar dezan eta, hartara, Espainiak Bruselan dituen enbaxadak eta kontsuletzeak egin ditzaten Nafarroak Bruselan duen Bulegoak gaur egun dituen lanak, bulego hori zabalik edukitzeak Nafarroako Foru Komunitateari eragiten dion gastua murrizteko.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 10ean

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sala dezan Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalarekin sinatutako hitzarmena, 2011ko abenduaren 31tik aurrerako ondorioekin.**

*MOZIOA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Mari-sa De Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen zen sala zezan Gizarte Segurantzaren Institutu

Nazionalarekin sinatutako hitzarmena, 2011ko abenduaren 31tik aurrerako ondorioekin. Mozio hori 2011ko urriaren 21eko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera



---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, Iruñean jarritako izeien jatorriari buruzkoa.**

*VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Iruñean jarritako izeien jatorriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak izei natural sorta bat laga dio Iruñeko Udalari, hiriburuko kaleetan para ditzan. Izeiak paratzeko ekitaldi publikoan, Iruñeko alkate Enrique Maya jaunak nabarmendu nahi izan zuen zein garrantzitsuak diren ingurunearekiko errespetua eta hiria zaintzea.

Albistea irakurrita, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

- Nafarroako Gobernuak nondik lortu ditu izei horiek?

Iruñean, 2011ko abenduaren 29an

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

---

## **Galdera, De Guindos ministro jaunak autonomia erkidegoetako aurrekontuak onetsi aurretik Gobernu Zentralak eman beharreko baimenari buruz eginiko adierazpenen inguruko iritziari buruzkoa.**

*MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, De Guindos ministro jaunak autonomia erkidegoetako aurrekontuak onetsi aurretik Gobernu Zentralak eman beharre-

ko baimenari buruz eginiko adierazpenen inguruko iritziari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Foru Araubideko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak ahoz erantzun dezan Foru Araubideko Batzordean:

Luis de Guindos ministroak gaur bertan, urtarrilaren 5ean, adierazi du 2012ko martxoan edo

apirilean lege bat onetsiko dela, zeinaren arabera beharrezkoa izanen baita Gobernu zentralak alde aurretik baimena ematea autonomia erkidegoen aurrekontuak onesteko. Zer deritzozu adierazpen horri?

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 5ean

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

---

**Galdera, Gobernuko lehendakariordeak BPGa gutxiago hazi izanak 2012ko diru-sarrera fiskaletan izanen duen eraginaren gainean eginiko adierazpenei buruzkoa.**

**MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Gobernuko lehendakariordeak BPGa gutxiago hazi izanak 2012ko diru-sarrera fiskaletan izanen duen eraginaren gainean eginiko adierazpenei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

ondoko galdera egin du, Gobernuko lehendakariorde Jiménez jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Miranda jaunak abenduaren 23ko Osoko Bilkuran adierazi zuen ezen, bere lan-talde ekonomikoaren estimazioen arabera, 2012an BPGa % 0,8 jaisteak (%1,9tik % 1,1era) 17 milioi euroko aldea eraginen zuela diru-bilketaren arloan. Kontuan hartuta adierazpen horiek, eta kontuan hartuta orobat Gobernuak informatu digula zerga bidezko diru-sarreretako 50 milioi utzi direla erreserban, 2012an gerta litezkeen balizko zailtasunei aurre egiteko, ondokoa jakin nahi dut:

Nola ulertu behar dira zuk berrikitan egindako adierazpenak, zeinen bidez kezka handia helarazi zenuen BPGa gutxiago igotzeak zerga bidezko 2012ko diru-sarreretan izan lezakeen eragina dela eta?

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 5ean

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

## **Galdera, zentro teknologikoen kostuari buruzkoa.**

**MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, zentro teknologikoen kostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Berrikuntza, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilari Lourdes Goicoechea andreak Batzordean ahoz erantzun dezan.

Diario de Navarra egunkariak urtarrilaren 5ean argitaratutako informazio baten arabera, "Nafarro-

ako Gobernuak teknologia zentroyen kostuaren 31 milioiak murriztu nahi ditu."

Bestalde, 2012rako onetsi berri den aurrekontuan 34 milioi euro inguru esleitu zaizkio Nafarroako Teknologia Planaren proiektuari, "Enpresa jardueren sustapena" izeneko 750. programaren barruan.

Proiektu horrek 62,7 milioi euro zituen esleiturik 2011rako aurrekontuan, baina horietatik kendu behar ziren onura fiskaletako 20,4 milioi euro, ez direnak jada aurrekontuan sartzen. Alegia, 2011n 42,3 milioi euro jaso ziren aurrekontuan.

Horra galdera:

1. Nafarroako Teknologia Planaren proiektuko 34 milioien barruan sartzen al dira Diario de Navarra egunkariak teknologia zentroyen kostu gisa aipatzen dituen 31 milioiak?

2. 2012rako aurrekontuak egitean, kontuan hartu al da 31 milioiko kostu horren murrizketa? Hortaz, teknologia zentroyen kostuari dagokionez 2012rako aurrekontua 31 milioi horiek baino txikiagoa da jada? Zenbat txikiago?

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

## **Galdera, Nafarroako Pirinioetako Partzuergoa desegiteari buruzkoa.**

**PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Pirinioetako Partzuergoa desegiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Leuza García, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Kulturako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Jakin izan dugunez, Nafarroako Pirinioko Turismo Partzuergoa desegin da, 17 urte eta gero. Departamentuaren ustez, desegiteak ba al du zerikusirik partzuergoei laguntzeko eta toki entitateei nahiz partzuergoei laguntzeko kontusailak murriztearekin?

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 12an.

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

## **Galdera, Lizarrako Remontival ikastetxe publikoko hizkuntza ereduen arabera balizko bereizketari buruzkoa.**

*NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, Lizarrako Remontival ikastetxe publikoko hizkuntza ereduen arabera balizko bereizketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuak zer deritza Lizarrako Remontival ikastetxe publikoa hizkuntza ereduen arabera banatzeko aukera kudeatzeko moduari? Departamentuak zer jarrera du aukera horri dagokionez?

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

## **Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa osatzen duten administrazio kontseiluetako kideei buruzkoa.**

*ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa osatzen duten administrazio kontseiluetako kideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Ekonomiako Departamentuak idatziz erantzun dezan:

– Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa osatzen duten administrazio kontseiluetako kideen zerrenda, sektore publikoaren berregituraketa prozesua burutu eta gero.

– Korporazioaren administrazio kontseiluko egungo kideen eta korporazioan sartuta dauden hamahiru sozietateetako kideen zerrenda hartzen ditu bere barrenean eskari honek.

Iruñean, 2011ko abenduaren 27an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

## **Galdera, Odol eta Ehun Bankuan erabiltzen den prozedurari eta ehunen kontrolaren kudeaketari buruzkoa.**

### **BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Odol eta Ehun Bankuan erabiltzen den prozedurari eta ehunen kontrolaren kudeaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak egin ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

1. Zer prozedura erabiltzen da eta nork kudeatzen du Odol eta Ehun Bankuko ehunen, organoen eta hemoderibatuen kontrola?

2. Plasma industrialak erosteari dagokionez, nork eta nola kudeatzen ditu erosketak eta fakturazioa? Azken bi urteotako fakturazioa eskatzen dugu.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

## **Galdera, N-240 errepidean, Ledeko parean, trafiko astunari balizko muga ezartzeari buruzkoa.**

### *TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztutako galdera, N-240 errepidean, Ledeko parean, trafiko astunari balizko muga ezartzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau idatziz erantzutea eskatzen du.

Herri Lanetako zuzendari nagusiarekin eta bere departamentuko teknikarekin izandako bilera baten ondotik, Zangozako Eskualdeko udal guztietako ordezkariak bere kezka eta oposizioa adierazi dute, 5,5 Tm-ko trafiko astunari mugatu edo

murritzitu eginen zaiolako egungo N-240 errepide-tik igarotzea Ledean eta Irati ibaiaren gaineko zubian, A-21 autobia erabilgarri jartzen denean.

Udal ordezkari horien iritziz, muga horrek berekin ekar dezake interes turistikoa nabariko eskualde bateko bisitari kopurua asko jaistea, noiz eta egoera ekonomikoa zaila den honetan, eta horrek eragin oso negatiboa izan lezake eskualdeko enpleguari dagokionez.

Halaber, Esako udalak eta "Xabierren Lurrak" Turismo Partzuergoak eskatu dute Nafarroako Gobernuak A-21 autobia Esako lotunea argizta dezan, eskualdeko destino turistikotara sartzeko gune estrategikoa baita.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dugu:

1. Nafarroako Gobernuak zer asmo du trafiko astunari N-240 errepidean Ledeatik eta Irati ibaiaren gaineko zubitik igarotzeko balizko muga ezartzeari dagokionez?

2. Zer alternatiba ari da aztertzen?

3. Nola ikusten du eskualdeko udal ordezkariak horri buruz egindako eskaria?

4. Zer asmo du A-21 autobia Esako lotunea argiztatzeko eskaerari dagokionez?

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 5ean

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

## **Galdera, Josefina Arregui zentroko ohe bakoitzaren kostuari buruzkoa.**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Adieraztea jakinaren gainean dagoela Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak erretiratu duela Josefina Arregui zentroko ohe bakoitzaren kostuari buruzko galdera. Galdera hori 2011ko

azaroaren 18ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Comptos Ganberaren Erregistro Orokorraren 2012rako ordutegi ofiziala.**

Comptos Ganberako lehendakariak, behean ageri den egunean, honako ebazpen hau eman zuen:

«Nafarroako Comptos Ganberaren Erregistro Orokorraren ordutegi ofiziala zehazteko, erakunde honetara zuzendutako dokumentazio ofiziala jasotzeari dagokionez, lehendakaritza honek

**EBATZI DU:**

**Lehena.** Xedatzea Nafarroako Comptos Ganberaren Erregistro Orokorraren 2012. urterako ordutegi ofiziala 08:30ean hasi eta 14:30era bitartekoa izanen dela, astelehenetik ostiralera.

**Bigarrena.** Xedatzea ezen, Comptos Ganberara zuzendutako dokumentazioa erregistratzearen

ondorioetarako, erakunde honen Erregistro Orokorra itxita egonen dela Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Administrazio Publiko eta Barneko kontseilariaren abenduaren 23ko 808/2011 Foru Aginduan ezarritako larunbat, igande eta jai egunetan, bai eta uztailaren 6an, 11n, 12an eta 13an ere, egun horiek baliogabeak izanen baitira ondorio guztietarako.

**Hirugarrena.** Erabaki hau Comptos Ganberako idazkari nagusiari eta administratzaileari igortzea eta erakunde honetako iragarki oholean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas